AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4569

ERABAKIA, 2012ko irailaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakunde zentraleko Giza Baliabideetako zuzendaria izendatzeko dena.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta, halaber, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak onartutako Osakidetza–Euskal Osasun Zerbitzuko Estatutu Sozialen 8.5.g) artikuluaren arabera, Administrazio Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA:

Lehenengoa.– Juana Fernández Refoyo andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakunde zentraleko Giza Baliabideetako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Agindu honek 2012ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 26a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.